


ASTEKARIA - 2008ko irailaren 5ean - XII. urtea - Usurbil, 334. zenbakia

# Noaia!!!

www.noaia.com



Jendetza eta giro ederra  
Atxegaldeko festetan



Amador Granado  
dominaren bila joan da Txinara

# LIZARDI LIBRYBENDA



Liburuak, aldizkariak, musika, opariak,  
eskola materiala, testu liburuak,  
enkuadernazioak eta fax zerbitzua

Etxebeste kalea, 1  
☎ 943 361 115

## IBAI ONDO ELKARTEAK SANESTEBAN JAIETAKO PLATER TIARKETAN LAGUNDU ZUTEN GUZTIEI ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIE

- Aialde Berri Sagardotegia
- Aizpurua autobusak
- Alamandegi Jatetxea
- Amestoy Txakolinak
- Andazpe Elkarte
- Artzabal Supermerkatua DIA
- Astia, zaran Sagardotegia
- Auto Guria
- Bastzerri
- Berasategi Kafeak
- Bruño Mariskoak
- Osa Harategia
- Egioleta Sagardoak
- Eibartrans
- Eizmendi
- Errozpi
- Etxebeste Ardoak
- Etxetxo Lorategia
- Euro Label
- Fagor
- Galar Ruiz Ardoak
- Hotel Amara Plaza
- Ingemar
- Juantxo Ferrreteria
- Labe-goxo
- Manterola Gasolindegia
- Manterola Mariskoak
- Maykar Jatetxea
- Mendiluze Sagardoak
- Peio Arraindegia
- Saltxipi Jatetxea
- San Estebango Jai Batzordea
- Urdaintzi Igeltseritza
- Urtinea Lorategia
- Usurbil Autoak
- Usurbilgo Udala
- Zubillaga
- Zumeta Jatetxea

## ESKERRIK ASKO!



**MAHUKA**  
etxebeste 3 - ☎ 943 361 106



- Talde txikiak
- Gazte eta helduentzako ikastaroak
- Cambridge-ko asterketak  
PET, F.C., C.A.E

**MATRIKULAZIO EPEA**  
**Irailaren 8tik aurrera**  
**Ordutegia**  
**11h-13h / 18h-20h**

Informa zaitez  
Deitu tel. 943 37 14 02  
Zubiaurrenea 6

**Albistea iruditan !!**

# Amuriza eta Arregirekin bertso-afaria Olarrondon

**X**abier Amuriza eta Joxe Arregi plaza ugari egindako bertsolariak dira. Biak kantari izango ditugu irailaren 26an Olarrondon egingo den bertso-afarian. Menua ere kategoriakoa izango da: entsalada epela, bakailoa konfitatua piparrekin, idi-txuleta, gazta tarta, kafea, kopa eta purua. Edateko, sagardoa eta ardoa aukeran.

Nafartarrak taldeak antolatu du irailaren 26ko bertso-saioa, baina txartelak erosteko azken eguna irailaren 22a izango da. Olarrondon bertan, Txiribogan, Aginagako Arraten, Zubietako Barazarren, Añorgako Jolas Etxean, Lasarte-Oriako Jalgin eta Orioko Kolon Txikin aurkituko dituzue txartelak salgai, 30 eurotan.



IRAILAREN 26AN EGINGO DA BERTSO-AFARIA OLARRONDO JATETXEAN.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mairder Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

HAUR ESKOLA, UDARREGIREN ESKU \_\_\_\_\_ **5. OR.**

AMADOR GRANADOREKIN SOLASEAN \_\_\_\_\_ **6. OR.**

IKASTARO EZBERDINAK HASI DIRA \_\_\_\_\_ **8. OR.**

ATXEGALDEKO FESTAK IRUDITAN \_\_\_\_\_ **9. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**txirriStra**  
 KONTSEJUZARRA 13  
 943 360 466  
 pintxoak  
 ogitartekoak  
 plater konbinatuak  
**TABERNA**

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
 Obaba kalea 29 - ASTEASU  
 943 69 68 52 - 620 800 186



IMANOL UBEDA

## “Justizia nola ezagutu”

**A**kabo oporrak. Ordulariaren eta agendaren Amenpe izango gara aurrerantzean. Normaltasunak gauza horiek ditu. Txirrindulariak nola, gutako askok goizero-goizero erlojuaren kontrako lasterketak hasi beharko ditugu.

Hori bai, gutxinaka hasteko aholkatu digute. Gehiegi estresatzea ez dela komeni. Lasai hartzeko gauzak. Egunerokotasunean ere badirela gauza ederrak: udan hartutako kilo horiek gaintetik kentzeko gimnasia itzuli, lagunekin futbol partidak antolatu, ikastaro berri bat hasi, bildumaren bat egin... Horrek guztiak, eguneroko martxari errazago lotzen laguntzen omen duela.

Dagoeneko, ez dakit zenbat kolekzio egiteko amuak ipiniko dizkigute begien aurrean. Eta ikastaroak ere, ugarri ditugu aukeran.

Lan eskaintzak ere ez dira falta. Abuztuko lehorrea eta gero, egunkariak iragarkiz bete zaizkigu. Irakasleak behar dira, eskoletako jangeletan lan egiteko jendea, garraiolariak...

Guk ez dugu lantokiz aldatzeko asmorik. Gurean jarraituko dugu. Baina adituen aholkuei jarraituz, akaso, ikastaro batean emango dugu izena. Usurbilgo KzGunean, adibidez. “Justizia nola ezagutu” ikastaroa urriaren 2an eskainiko dute, arratsaldean, 16:00etatik 17:00etara. Ez da broma gero. Hala aurkitu dut idatzia iraileko Kultur Agendan.

Izan ere, oportetara joen ginen bezala aurkitu ditugu kontu asko eta asko. Ordubeteko ikastaroan, ulergaitz egiten zaizkigun matraka asko argitzeko gai izango al dira? Hain erraza balitz, ezta...

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

## Ika-mika!

### Kiratsa herrian

**H**urrengo asteetan udal gobernuak Habor bilketa sistema berriaren inposaketa prozesua martxan jarriko du. Orain dela ez hilabete asko erreferenduma exijitzen zituztenek aurrera doaz beren asmoetan itsu-itsu.

Atariz atari bilduko dizkigute zaborrak. Garai batean “txerrija” deitzen geniona baldetxo batean jasoko dugu. Baldeak bakoitzaren izena izango du. Janari gordina eta janari prestatua (berdura, haragia, arraia) baldera bota beharko dugu, poltsarik gabe, eta usairik etxe barruan izan ez dezagun baldearen tapa irekia mantentzeko aholkatuko digute. Baldea, astean bizpahiru aldiz, bakoitzaren portalean utzi beharko dugu esaten diguten orduetan. Gauzak txukun egiten ditugula ziurtatzeko zaborra bilduko duten langileek gure zaborra kontrolatuko dute. Baldea norberak bere etxean garbitu beharko du.

Egun batetik bestera kalean ditugun zabor-ontziak kenduko dizkigute. Papera, beste ontziak, ume eta helduentzat parde-lak, konpresak eta antzekoak biltzera portalerak etorriko zaizkigu eta gauzak txukun

egiten ditugula ziurtatzeko langileek gure zaborra begiratu eta kontrolatuko dute. Aginduak betetzen ez dutenek: multa. Eta gainera zaborrak biltzeko zergak igoko dizkigute aldaketa guzti hau ordaintzeko.

Azken hilabeteak udala ezer egiten ari zela zirudien. Ez. Lanean ibili da, proiektu bitxi honetan aritu da. Nor da udala gure zaborrean kuxkuxean ibiltzeko? Nor da udala zer jaten dudana, edo pardela erabiltzen dudana, edo zein botikak hartzen ditudana, edo hilekoa dudana, jakiteko aukera izateko? Kontrolpean bizitzen ginen urteak gaintuak genituela uste genuen.

Guzti honen atzetik beste asmo bat dagoela uste dugu. 353 etxe huts zeudela esaten ziguten hauteskundeetan. 15 hilabete pasa ondoren ez dute ezer egin horren inguruan. Orain dute aukera ederra jakiteko zein etxe dauden hutsak. Zaborra sortzen ez duen etxea, hutsa dagoen etxea da!

Eta nora eramango dute “txerrija” guzti hori? Ba, dakigunez, Arratzain-berri base-riaren inguruan dagoen lur-sail batean konpostaje makroplanta bat eraikiko digute, milaka metro karratutakoa, inguruko

herrietako (Oiartzun, Hernani, Lezo, Urnieta, Donostia?...) zabor guztia tratatuko duena, dozenaka tona egunero jasoko duena, kamioiak gora, kamioiak behera, bide estu batetik. Gasoleoa barra-barra erretzen. Oso ekologikoa.

Makro-konpostagunea 2010-11 urte aldera jarriko da martxan gure kalkuluen arabera, eta bitartean? Nora joango da urte amaieratik aurrera jasoko diguten “txerrija-na”?

Gipuzkoan existitzen ez den enpresa pribatu batera? Gasoleoa barra-barra erreaz?

Gu birziklapena eta konpostaketa ahalik eta gehien gehitzekoaren aldekoak gara, baina herritarrak konbentzitzen, herritarren askatasuna eta intimitatea errespetatuz, prozesu gradual batean, jada Diputazioaren bultzadaz Gipuzkoako hainbat lekuetan egiten ari den eran.

Politikariok ez gaude herritarren bizitza gehiago korapilatzen, baizik dituzten arazoak irtenbideak bilatzeko. “Atropello” honen aurrean ez geratu egonean.

# Haur Eskolaren zerbitzua

## Udarregi ikastolak kudeatuko du

**U**ztailaren 31n amaitu zen Haur Eskola kudeatzen zuen lan-taldearen eta Udalaren arteko hitzarmena. Aurrerantzean, Udarregi ikastolak kudeatuko du Haur Eskolaren zerbitzua. Hala erabaki du uda honetan zehar udalbatza plenoak.

Azken urte honetan, hainbat bilera egin dituzte hezkuntza alorrean inplikaturik dauden eragileek: Udala, gurasoak, hezitzaileak, herriko eragileak... Partzuergoaren sarean integratzeko aukera baztertu eta Haur Eskolaren zerbitzua deialdi publiko bidez esleitzeko erabaki zen.

Hala, pasa den uztailaren 8an ezohiko osoko bilkuran, Haur Eskolaren zerbitzua emakida bitartez esleitzeko kontratazio espedientea presaz onartzea eta lizitazioaren deialdi irekia egiteari baietzkoa eman zitzaion. Proposamena gehiengoaz onartu zen, alde bozkatu baitzuten EAE-ANVko eta PSE-EEko. EA kontra azaldu zen eta Aralarako abstinentu egin ziren.

Udal erabakiari jarraituz, uztailaren 14an GAOn argitaratu zen lizitazioaren



EAE-ANVko LAU ZINEGOTZI, PSE-EEko ZINEGOTZIA ETA ALKATEA BAINO EZ ZIREN BERTARATU ABUZTUAREN 28ko EZOHIKO UDALBATZA PLENOA.

iragarkia. Proposamenak aurkezteko epean, Udarregi ikastolarena izan zen aurkeztu zen eskaintza bakarra.

Lizitazio bakarraren proposamena aztertu eta gero, Kontratazio Mahaiak, uztailaren 28an eta 30ean bildu eta gero, bere esleipen-proposamena luzatu zion Kontratazio-Organoari.

Abuztuaren 7ko ez-ohiko udalbatza plenoan, Haur Eskolaren kudeaketa Udarregi ikastolari esleitzeko erabaki zen gehiengoaz.

Abuztuaren 14an, Luismari Ormaetxea EAko zinegotziak esleipen horren aurka errekurtso bat tartekatu zuen.

Udal teknikariek errekurtsoaren azterketa egin zuten. Azterketa horretan oinarrituz, abuztuaren 28ko ezohiko udalbatza plenoan, Luismari Ormaetxeak esleipenaren aurka aurkeztutako errekurtsoa aintzat ez hartzea erabaki zen gehiengoaz, EAE-ANV eta PSE-EEren aldeko botoekin. EA, Aralar eta EAJ-PNVko zinegotziek ez zuten plenoan parte hartu.

## EAREN ERREKURTSOA EZ DU AINTZAT HARTU UDALBATZA PLENOAK

**A**lkate izateaz aparte, Udarregi ikastolako guraso ere badenez, Xabier Mikel Errekondok alkatez eskumenak Juanjo Olaizola EAE-ANVko zinegotziaren eskutan utzi zituen eta entzule bezala jarraitu zuen abuztuaren 28ko ezohiko plenoa. Kuoruma bazela argitu ondoren, EAko zinegotzi Luismari Ormaetxeak Haur Eskolaren esleipenaren inguruan aurkeztutako errekurtsoari buruzko erantzuna aztertu eta bozkatu zuten bertaraturako zinegotziek.

Bozketa aurretik, PSE-EEko zinegotzi Amaya Goyaranek hitza hartu zuen. EAk errekurtsoak aurkezteko eskubide osoa duela eta legea eta arrazoa alde dituela adierazi zuen. Baina errekurtzeagatik errekurtzea ez dela egokia adierazi zuen Amaya Goyaranek. Haur

Eskola beharrezkoa dela herriarentzat. Errekurtsoen bidez, hartu beharreko erabakiak luzatu baino ez direla egiten. Gainera, plenoetan eta batzordeetan errekurtso horiek ez defendatzea leporatu zion (abuztuaren 28ko udalbatza plenoan ez zen EAko zinegotzirik izan). Udal teknikariek egindako lana eta profesionaltasuna goraiatu zituen; "udal txostena lan serio batean oinarritzen da", adierazi zuen bere balorazioan PSE-EEko zinegotziak.

Juanjo Olaizolak, EAE-ANVren ize-nean, batzuen jarrera oztapatzailea izan dela salatu zuen. EAren aukera Partzuergoarena izan zela baina hori ez zen gauzatu azkenean, eta orain "ez egin eta ez utzi egiten", hori izan dela Luismari Ormaetxearen jarrera.

Azken urtean ahalegin berezia egin

behar izan dutela askok ere nabarmendu zuen.

Entzuleen artean Udarregi ikastolako zuzendaria den Marije Imaz zegoen eta berak ere hitza hartu nahi izan zuen. Euren bokazioa herriari hezkuntza sistema on eta kalitatezkoa eskaintzea dela, baliabide denak ahalegin horretara bideratuz.

Gai honen harira, minduta azaldu zen Mariaje Imaz. EAko zinegotziek ikastolaren dinamika zein den ezagutzen dutela eta prozesu honetan guztian EAk egindako hainbat balorazioekin minduta sentitzen zela adierazi zuen.

Plenoa bukatu eta gero, alkateak eskerrak eman zizkien Amaya Goyarani eta Mariaje Imazi, eta bat egin zuen euren balorazioekin.

## Amador Granado, Txinako Joko Paraolimpikoetan

## “Inoiz baino hobeto nago”

**J**oko Olinpikoetan partehartzea gauzarik handiena da kirolari batentzat. Hala diote adituek. Amador Granado txirrindulari usurbildarrak ere berdin pentsatzen du. Joko Paraolimpikoak irailaren 6an hasiko dira Txinan eta hantxe izango da gure solaskidea. Domina eskuratzeko lehian ibiliko da gainera, kilometroko distantzian. Ilusioz ikusi genuen Txinara abiatu aurreko egunetan.

**NOAUA! Sasoi onean iritsiko al zara Jokoetara?**

**Amador Granado.** Inoiz baino hobeto nago. Baina ez dakit hori nahikoa izango den. Joko Paraolimpikoetan denek maila handia erakutsi ohi dute. Lau urtez behin bakarrik ospatzen dira eta gure moduko kirolarientzat txapelketa garrantzitsuena da. Denak saiatzen gara sasoi onenean iristen. Horregatik jendeak ahalegin berezia egiten du. Maila altuagoa izaten da.

## FABORITOEK ARTEAN

“Kilometroko distantzian, hiru urtez jarraian brontzeko domina eskuratu dut Munduko Txapelketan”

**N. Eta zure aurkariak nola daude.**

**A. G.** Egia esan ez dakit, ez dut hori neurtzeko aukerarik izan. Hortik nire egonezina. Azkenekoz iaz lehiatu nintzen, Manchesterren (Britainia Handia). Hara joan baino astebete lehenago, Donostiako belodromoan entrenatzen ari nintzela erorikoa izan nuen; denek irabazi ninduten Manchesterren. Ez nuen denbora ona egin.

**N. Noiz lortu zenuen Txinan partehartzeko gonbidapena?**

**A. G.** Iaz, garai hauetan. Bordelen



ABUZTUAREN 26AN AMADORREKIN IZAN GINEN DONOSTIAKO BELODRROMOAN. BERE EZKERREAN HODEI MAZKIARAN, 23 URTE AZPIKO TXIRRINDULARIA.

Munduko Txapelketa jokatu zenean argi eta garbi esan zuten Federaziokoek, dominarik lortzen ez zuenak ez zuela Jokoetara joateko aukerarik izango. Neurri batean, normala da. Gure kategorian ez dira lasterketa asko egiten eta hautatzaileak horrelako erreferentzietan oinarritzen dira. Nik, gainera, azken urteetan ibilbide bat osatu dut eta hori ere hor dago.

**N. Ez da Joko Paraolimpikoetan parte hartuko duzun lehen aldía, ezta?**

**A. G.** Txinakoak bigarren Jokoak izango dira niretzat. 2000. urtean, Sidney-ko Joko Paraolimpikoetara joateko zorian izan nintzen, baina azkenean ez nuen txartelik lortu. Duela lau urte, Atenasera joateko aukera izan nuen. Beraz, Txinako jokoak bigarrenak izango dira niretzat.

**N. Irailaren 8an hasiko zara lehian eta hiru lasterketa ezberdinetan hartuko duzu parte. Dena den, zein da zuretzat egun seinalatua?**

**A. G.** Irailaren 9koa. Kilometroko lasterketa egun horretan jokatuko da. Nire ahalegin denak, nire entrenamen-

du guztiak egun horretara bideratu ditut. Distantzia horretan, hiru urtez jarraian brontzeko domina eskuratu dut Munduko Txapelketan. Europako txapeldun-ordea ere banaiz.

Taldeko lasterketan ere hartuko dut parte, pistan. Talde ona dugu baina ez dugu elkarrekin ia entrenamendurik egin. Dominaren bat eskuratu ahal izateko taldeka gehiago entrenatu beharko genuke.

Azkenik, iraupen lasterketan arituko naiz, errepidean. Loteria bat izaten da errepideko lasterketa hori. Gainera, lehen aldiz, hiru kategoria ezberdin batu dituzte lasterketa bakar batean. Gero eta zailago dago errepideko lasterketan lehiatzea; horregatik, kilometroko distantzian oinarritu dut nire prestaketa guztia.

**N. Abuztuaren 29an abiatu zinen Txinara. Orduz aldaketara egokitze-ko nahikoa denbora izango al duzu? Horren beldurrik ba al duzu?**

**A. G.** Ni beti European lehiatu naiz. Berria izango da esperientzia. Eman dizkidaten aholku guztiak jarraitu ditut. Lasai egoteko esan didate, azkar moldatuko naizela hango ordutegira.

# “Leire Olaberria podiumean ikusi nuenean, ni ere negarrez hasi nintzen”

NOAUA! Zer suposatzen du zuretzat Leire Olaberriak lortu berri duena: brontzezko domina azken Olinpiadetan.

**Amador Granado.** Bere progresioa gertutik ezagutu dut. Belodromoan ezagutu gara eta berarekin lehiatzeko aukera izan dut pistan. Oraindik asko du esateko. Hasi besterik ez da egin eta onena emateko dago oraindik.

**N. Poztuko zineten orduan?**

**A. G. Bai,** noski. Podiumean negarrez ikusi nuenean ni ere negarrez hasi nintzen. Entrenamenduetan maiz egin dugu topo, nahiz eta berak entrenamendu ezberdinak egin.

**N. Beste laguntzen artean, Usurbilgo Kirol Patronatuaren dirulaguntza jaso duzu.**

**A. G.** Jaso ditudan laguntza denak eskertu nahi ditut. Lerro hauen bidez, laguntza eskaini didaten instituzio eta erakunde denei eskerrak eman nahi dizkiet.

Usurbilgo Kirol Patronatuak ere diruz

lagundu nau. Nik ez dut nire atzean inor eta horregatik Patronatutik niregana hurbiltzeko egin duten saiakera eskertu nahi dut. Gainera, kirolari bezala hartu naute eta hori oso garrantzitsua da niretzat.

**N. Laguntzak laguntza, zu amateurra zara oraindik.**

**A. G.** Ez naiz profesionala. Bizikletak ez dit bizitzeko adina ematen. Lan egin behar dut. Eskerrak autonomoa naizen... Baina lan egin behar dut aurrera egiteko. Dena den, bizikletari denbora gehiago eskaini ahal diot aurten. Hainbat kontzentrazio egin ditut: bi aldiz Mallorkan izan naiz entrenatzen, beste lau aste Sevillako belodromoan egin ditut eta beste aste bat gehiago Valentzian. Dena Txinako Jokoei begira.

**N. Bereziak izango dira joko hauek, ezta? Zure azken jokoak ziurrenik.**

**A. G.** Adin bat daukat eta horregatik azken jokoak izango dira niretzat. Atenas 2004an banekien dominarik eskuratzeko aukerarik ez nuela izango baina honako-



LEIRE OLABERRIA, AMADOR GRANADO ETA HODEI MAZKARIAN, ELKARREKIN ENTRENATZEN.

an aukerak ditudala uste dut. Kilometroko distantzian, lehen sei txirrindularien artean nabil. Presio handia sentitzen dut eta horregatik lehiatzen hasteko irrikitan nago.

IMANOL UBEDA

## Erretirotik gertu

**A**mador Granado ez da hasiberria. 41 urte ditu eta hiru urtez jarraian brontzezko domina eskuratu du Txirrindularitzako Munduko Txapelketan. Txinakoak bigarren Joko Paraolimpikoak izango dira usurbildar txirrindulariarentzat.

Iaz, Txinara joateko txartela eskuratzearrekin konforme zen. “Kirol ibilbideari amaiera emateko modu ederra”, adierazi zigun iazko irailean, Bordelen brontzezko domina eskuratu berrikan. Behin txartela eskuan, orain domina du helburu. Gertu ibiliko da eta berak oso ondo daki hori. Sasoi onean aurkitzen da eta faboritoetako bat da kilometroko distantzian. Irailaren 9an, Euskal Herrian goizeko 10:30ak direnean, jakingo dugu domina eskuratu duen ala ez.

Dena den, Txinatik pozik bueltatzen



BIGARRIN ALDIZ PARTE HARTUKO DU USURBILDARRAK JOKOTAN.

bada akaso beste urtebetez luzatuko du bere kirol ibilbidea. 2009an Sevillan jokatuko da txirrindularitzako Munduko Txapelketa eta bertako belodromo oso ondo ezagutzen du. Lagunak eta etxeokak gertu izango lituzke bere azken lasterketan. Baina hori, Txinatik bueltan erabakiko du ziurrenik. Orain, jokoetan du burua.

### Irailaren 9an, lasterketa garrantzitsuen

**IRAILAK 9 ASTEARTEA**  
Kilometroko distantzia pistan, finala. Laoshaneko belodromoan. 8:30etik aurrera, La2 edota Teledeporten eskainiko dute.

**IRAILAK 10 ASTEAZKENA**  
Taldekako lasterketa pistan, finala. Laoshaneko belodromoan. 9:00etatik aurrera, La2 edota Teledeporten eskainiko dute.

**IRAILAK 14 ASTEAZKENA**  
Iraupen lasterketa, errepidean. 10:00etatik aurrera, Ming Toms Reservoir Road zirkuituan. 03:00etatik aurrera, La2 edota Teledeporten eskainiko dute lasterketa.

\* Orduak, Euskal Herrikoak.

## Lan egin edo ikasi, iraileko eskaintzen artean

**I**kasturte edo lan urte berria hastear edo dagoeneko ekinda izango dira zuetako asko. Baina datozen hilabeteetan zer egin argi ez duenen bat egongo da. Ikasi edo lan egin nahi izan, baina oraindik erabakirik hartu ez duenarentzat, hona hemen elkarren artean erabat desberdinak diren hiru proposamen.

### Lanbide Hastapenean

#### matrikulatze epea zabalik

Iraileko lehen hamabostaldian zehar zabalik izango da, Lanbide Hastapeneko eskaintzan matrikulatze epea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua eskuratu ez duten ikasleei zuzendua dago kalitatezko lan-munduratzeari ahalbidetzen duen bi urteko hezkuntza eskaintza. Lanbide bati lotutako prestakuntza jasotzearekin batera, DBH-ko graduatua lortu edo Erdi Mailako Lanbide Heziketan sartzeko proba landu daiteke.

#### Espezialitateak

Andoainean: soldadurako langilea; karrozeriako langilea.

Usurbilen: ile apaintzaile laguntzaile; sukaldaritza-zerbitzari laguntzaile.

Izena ematea, udaletxean: 943 371 951 / 943 360 465.

#### Iraupena

Bi ikasturtekoa, 2.100 orduko formazio teoriko eta praktikoa.

Sakontze ikastaroa: 750 ordu.

Eskualdeko enpresetan lan-praktikak: 350 ordu.

#### Baldintzak

Adina: 16-18 urte izatea. Salbuespen gisa eta baldintzapean, 15 urtekoek parte hartzeko aukera.

DBH-ko titulurik lortu ez duen ikaslea izatea.

Lanbidearekiko motibazioa eduki eta lana lanbide horietan lortu nahi izatea.



PINTORE IKASTAROA AGINAGAKO PINTURA TAILERREAN ESKAINIKO DA. LANGABETUEK BAINA BAITA LANEAN DIRENEK ERE EMAN DEZAKETE IZENA.

### Pintore ikastaroan izena emateko azken eguna, irailaren 8a

**P**intura eta papereztatze lanetarako gaitasuna eskuratzeko da Usurbilgo Udaleko Enplegu Sustapen Departamenduak antolatutako duen ikastaroaren helburua. Aurten, langabetuei baina baita lanean ari direnei ere zuzenduta dago ikastaroa. Azken horiek ikasketak osorik edota moduluka egiteko aukera izango dute. Irailaren 15ean hasiko den ikastaroan, lanaren antolaketa, pintura plastiko eta akrilikoaren ezarpena, bernizatu, lakatu, esmalte edota papereztatzei buruzko lanketa egingo da.

**Iraupena:** irailak 15-martxoak 24.

**Ordu kopurua:** 615.

**Ordutegia:** 8:30-13:30, astelehenetik ostiralera.

**Lekua:** Aginagako Pintura Tailerra.

**Informazioa, izen-ematea:** Usurbilgo Udala, Enplegu Sustapen Departamendua. 943 37 19 51.

### Administrari laguntzaileen lan poltsa

**A**ldi baterako edo interinoki Aizendatzeko Administrari Laguntzaileen lan poltsa osatzeko asmoa du Usurbilgo Udalak. Helburua, aldi baterako beharrei erantzutea litzateke. Premiazko prozedurari ekitea derrigorrezkotzat jotzen dute, une honetan ez baitago halakorik indarrean. 2011ko irailaren 30a arteko iraupen epea izango du aipatutako lan poltsak. Indarrean den legediak emandako honako eskumenak erabilita hartu du Alkateak erabakia:

-Toki-Jaurlararen Oinarriak arautzen dituzten apirilaren 2ko Legearen 21.1.g) eta 102 artikulua.

-Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legearen 10., 11., 55. eta 56 artikulua.

- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 33. artikulua.



# Lehengoko antolatzaileen omenez

**G**arai bateko festetako antolatzaileak gogoan izan eta omendu dituzte aurten, Atxegaldeko jaien hasieran. Oso modu berezian, auzoko garai hartako gaztetxoengatik hainbeste egin zuen auzotar bat; Kontxa Rodriguez.

Hunkituta, omenduak esker hitzak izan zituen antolatzaile eta auzotarrentzat. Eta oroitzapen berezia, garai hartan, berarekin batera auzoko giroa piztu eta mantentzearen alde lan egin zuten guztientzat. Haietako asko gaur egungo Jai Batzordeko kideen gurasoak dira.

Omenaldi sentikorrarekin batera jaurtitako txupinazoak eta The Txortains txarangaren doinuek alaitu zituzten jaietako lehen orduak.



JAI BATZORDEKO BI KIDEK AURRESKUA DANTZATU ZIOTEN OMENDUARI. AMAIERAN, LORE-SORTA EDERRA JASO ZUEN, BERTARATU ZIRENEN TXALDEKIN BATERA. TXUPINAZO JAURTIKETAREKIN, JAIK OFIZIALKI HASI ZIREN.

**Usurbil eraikiaz**  
eausurbil.net



**etika  
eta  
politika**



**Irailaren 10etik aurrera [www.eausurbil.net](http://www.eausurbil.net) denon eskura.**

**Udaletxearen martxa, udal gobernuaren eginak,  
gure eginak eta asmoak, herritarren kezka eta  
partehartzea, barne eztabaidak...**

**20 urtez nabarmendu gaitun  
ikurra aldatu dugu, baina...**



**betikuak izaten jarraitzen dugu!!**



# Haur zein gaztetxoak, denak jolasean

## Puzgarri eta jokoetan primeran pasatzeko aukera izan dute

**H**aur eta gaztetxoek euren eguna ospatu zuten larunbat goiz partean. Primeran pasa zuten, gehienentzat ikastolara itzuli aurreko jai giro ukitua izango zuten azken asteburuan.

Abuztuaren 30ean, goiz parterako plana egina zuten haur eta gaztetxo askok eta baita haien gurasoek ere; Atxegaldeko jaietara joatea, noski. Udarregi ikastolako plazan puzgarriak jarri eta nekatu arte salto eta brinko jardun zuten gaztetxoek. Antolatzaileek prestatutako jokoetan ere ez ziren atzean geratu. Aulki jokoan, buruhandien aurretik korrikan edota barruan opariak gordetzen zituzten loreontziak puskatzen duten trebezia ez da nolana hikoia.

Eta garrantzitsuena, primeran pasa zutela denek. Antolatzaileen deialdiari kasu eginez, etxetik eramandako bazkaria jai gunean bertan dastatu zuten



ZORTE HANDIA IZAN DUTE ATXEGALDEN, EGURALDIA ERE LAGUN IZAN BAITUTE ASTEBURU OSOAN. HAUR JOKOETAN ADIBIDEZ.

goiz partean bertan egondako guraso eta gaztetxo batzuek.

**Herriko musika taldeak**  
Asteburuko gauetan parrandarako

gogoak eta giroak ez du etenik izan. Odolaren Mintzoa, Pikutara, Mendeku Itxua, Dj Larra eta Beste Bat taldeak igaro dira Atxegaldetik. Plaza inguruak bete dituzte denek.

### Xexenak biziak, oso biziak

**A**rrizabalagarren xexenekin adi-adi ibili behar izan zuten Udarregi ikastola atzeko belardiko itxitura barrura salto egin zuten korrikalariek. Bizi askoak ziren denak. Hala ere, gazte ausartik ez zen falta izan.



XEXENAK ETA PONIAK EKARRI ZITUZTEN ABUZTUAREN 30EAN.

### Herri afarian, leku gehiagorik ez

**I**az bezala, herri-afarirako prestatutako txartel guztiak saldu dira. Menu ederra eta lagun arteko giro hobea, ezin gehiago eskatu. Amaieran, gazta eder baten pisua asmatzeko lehiaketa antolatu zen. Aitor Udabe, garaile.



HERRI AFARIAN EZ ZEGOEN ESERLEKU HUTS BAKAR BAT ERE.

### Mus zaleen hitzordua

**M**us txapelketek zaletu ugari bildu ohi dituzte, baita Atxegalden ere. Dezente luzatu da aurtengoan ere, ez baita laburra karta joko honetan izena ematen duten iaio edo jokalaria zaletuen zerrenda.



IRUDIAN, MUS JOKALARIAK TXAPELKETAKO AZKEN TXANPAN.

# Txerrikikoak ere, haur jolasetan

## Atxegaldeko festetarako emanaldi berria prestatu zuten

**S**antixabeletan auzolagunen paperean sartuta, bizilagun komunitate baten gorabeherak oholtza gainera eraman zituzten Txerriki antzerki taldekoek. Atxegaldeko festetan, haur jolasak irudikatu zituzten.

Lehen Kale Antzerki Egunean "Txarraka... show!" izeneko emanaldia herritik kanpo, Azpeitian estreinatu aurreko asteburuan, Atxegalden izan dira Txerriki Usurbilgo antzerki taldeko kideak.

Haur jolasak hartu zituzten gai nagusizat, eta lehen parkea zegoen Atxegaldeko plaza, leku ezin egokiagoa beraz, eskenatoki gisa.

Adin tarte desberdinetako aktoreak izan arren, denok omen dugu barruan haur izaerari dagokion nortasunaren zati bat, eta antzerki emanaldirako primeran irudikatu zituzten euren paperak. Barre algarak, negarrak... denetik izan zuten emanaldiak iraun zuen artean.



TXERRIKI ANTZERKI TALDEKOEK EMANALDI BERRIA ESKAINI ZUTEN ATXEGALDEKO JAIETAKO AZKEN EGUNEAN.

### Agurtzeko, Joxpa

Euskal kantu ezagunen errepertorioa astindu eta aurrean bildutakoak dantzan jarri zituzten Joxpa musika taldekoek. Baita abesten ere. Igande iluntzea, asteburua eta jaiak ezin zitezkeen

modu hobean amaitu.

### Argazki ugari Interneten

Jaietako argazkiak helbide honetan ipini ditu Atxegaldeko Jai Batzordeak: <http://picasaweb.google.es/atxegaldekojaiak>

## Antzerki saioa eta gero, hamaiketako

**A**ntzerki emanaldia ikusi ostean, Alkorta Autozerbitzuak en eskutik prestatutako txorizo eta haragi egosia dastatzeko ilara luzea zegoen. Arratsaldean ere irudi bera errepikatu zen, piper dastaketan ere. Sabela ederki zaintzen dugu.



USAIN EDERRA ETA ZAPORE HOBEAGOKO HAMAIKETAKOA.

## Patata tortilla lehiaketa

**J**aietarako prestatu zuten karpaxtura sukalde inprobisatuan bihurtu zen jaietako azken arratsaldean. Parte hartzaile asko, beste hainbeste patata tortilla eder, baina epaimahaiaren erabakia, bakarra izan zen.



IRUDIAN, PATATA TORTILLA LEHIAKETAKO IRABAZLEAK.

## Azken traka, ikusgarria

**I**kusgarria eta entzuteko modukoa izan zen, Udarregi ikastolako plazan, aurtengo jaiak agurtzeko antolatzaileek prestatu zuten azken traka, zezen suzko eta guzti. Lurrean eta airean, kolorea, mugimendua eta argitasuna nagusitu zen.



AUZOKO PLAZA ONDOAN ERRE ZITUZTEN AZKEN KARTUTXOAK.

# Eta bi aste barru, festak Santuenean

**H**amabost egun besterik ez dira falta, Urdaiegaren magalean kokatuta dagoen auzoan festei hasiera emateko. Asteburu bete ekitaldi, Santueneako bizilagunen eta bertaraten direnen jai gosea asetzeko.

Irailaren 19an, arratsaldeko 17:00etan. Ordu horretan, egunerokotasunaz ahaztu eta jai giroan murgilduko da Santuenea. Txupinazo ekitaldiarekin eta txokolatada dastatze ederraren inguruan hasiko dira aurtengo festak. Une horretatik aurrera, primeran pasatzeko gogoia ez da etengo asteburua amaitu artean.

### Jokoak goizaldean

Musika talde gazteen emanaldiek ostiral gaua girotuko dute. Gazteei, DJ Larrak eta Josune Aranburuk hartuko diete musikaren alorreko lekukoa, haurrak protagonista izango dituen hilaren 20an. Etxeko txikienek hain zuzen, puzgarriak, bazkaria edota buruhandiak izango dituzte bidelagun, goizetik iluntzera arte.



BI ASTE BARRU JAI GIROA NAGUSITUKO DA SANTUENEAN. IRAILAREN 19TIK 21ERA FESTETAN MURGILDUKO DIRA SANTUENeko AUZOKIDEAK.

Ingandean, jaietako azken egunean, animaliek hartuko dute protagonismoa, zaldi eta zakurrek hain zuzen.

Jai Batzordekoek ekitaldi desberdinez uztartu duten egitaraua eskenatoki desberdinetan gauzatuko da. Musika emanaldien oholtzarekin batera zabalduko

duten karpan adibidez. Otordu bat baino gehiago burutuko da bertan; herri bazkaria tartean. Beste festa gunea, plaza. Traka eta suzko zezenek inguru haietan iragarriko dute auzoko jaien amaiera. Datorren asteko NOAUA!-n, xehetasun gehiago.

## Santueneako jaiak 2008

### Irailak 19, ostirala

17:00 Txupinazoa eta txokolatada jubilatuen tabernaren aurrealdean. Ondoren, globo gerra.

18:30 Buruhandiak.

19:00 Sardin jana txarangarekin.

21:00 Musikarien afariak.

Ogitartekoak egongo dira karpa berdinean bertan afaldu nahi duten guztientzat.

23:00 Kontzertuak: Odolaren Mintzoa, Gaueko Itzala, Buruak Beste, NPJ.

Ondoren, gazteen jokoak (Altxorraren bila, txerri harrapaketa, globo gerra...) eta segidan txokolatada, Auzoko Kultur Elkarteko gazte-ek banatuta.

### Irailak 20, larunbata

11:00 Haur jokoak.

12:00-14:00 Haurren parkea plazan: puzgarriak, kuads...

14:00 Haurren bazkaria (Bakoitzak bere bazkaria ekarri. Edariak eta postrea banatuko dira).

16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 bitartean inskripzioa).

17:30 Txokolatada Tragoxka tabernaren aurrean.

16:00-19:00 Haur jolasak. Ondoren, buruhandiak.

20:30 DJ Larraren ongi etorria afarira datozenei.

21:30 Kantu afaria gure Josunerekin.

00:00 DJ Larra goizaldera arte.

### Irailak 21, igandea

11:30 Herriko dantzariak plazan. Ondoren, hamaiketako jubilatuen tabernaren aurrealdean.

12:00 Toka.

14:00 Herri bazkaria. Ondoren, txaranga.

17:00 Agiliti elkarteak emango duen zakurren erakustaldia plazan.

18:30 Jaiola Zaldi doma plazan. Segidan, buruhandiak.

19:30 Piper dastaketa.

21:00 Traka eta suzko zezena.

Antolatzailea: Santueneako Jai Batzordea.

## Irailaren 21ean Lehen Herri Lasterketa

U surbilgo Baxurde Txiki Triatloi Taldeak lehen herri lasterketa antolatu du, datorren irailaren 21erako. Goizeko hamaitan jarri dute hitzordua. Korrikalariak herria zeharkatuko duen 10,5 kilometrotako ibilbidea osatu beharko dute. Izen ematea jada zabalik dago, herrikrosa.com atarian edota 661 258 977 telefono zenbakian. Aldez aurretik 5 eurotan eta egunean bertan 8 eurotan. Parte hartzaileak ez dira esku hutsik etxeratu. Lehen hiru gizon eta emakumeek sari bana jasoko dute, korrikalari guztiak kamisetak. Zozketarik ez da faltako eta antolatzaileek gogorazten dutenez, giro bikaina izango da.



BAXURDE TXIKI TRIATLOI TALDEAK ANTOLATU DU IRAILAREN 21EKO HERRI LASTERKETA. IZEN-EMATEA IREKITA DAGO.

## Erraustegiari buruzko hitzaldia

Alkartasuna Nekazal Kooperatibak 100 urte bete dituen honetan, ekitaldi ugari antolatu ditu. Irailaren 25ean, Pello Lozano hizlariak errauste-plantak gure base-rietan izango lukeen eraginaz hitz egingo du arratsaldeko 19:30ean hasiko den hitzaldian.

## “Magia teilatuan”, antzerkia txikientzat

Zer ezkutatu da teilatuetan? Erantzuna Sutegin topatuko dugu, irailaren 28an egingo den antzerki saioan. 5 urtetik aurrerako gaztetxoek zuzendutako antzerki emanaldia arratsaldeko 17:30ean hasiko da. Udalak eta Kutxak antolatu dute iraileko azken igandeko saioa.



IRAILAREN 28AN IZANGO DA ANTZERKIA.

**Banatzailea behar da urrian lan egiteko**

Egitekoa: NOAUA! astekaria Usurbilen banatzea

Tf: 943 360 321 / e-posta: elkarte@noaua.com

HALITATERRA  
**EUSKAL OKELA**

CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO

**ALKORTA AUTOZERBITZUA**

Frutak  
Barazkiak  
Etxeko produktuak  
Izoztuak

Behoko kalea, 4  
Telf: 943 36 57 42

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**LATAILLADE ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behean · 943 363 348 · 609 888 021

# Kiroldegia egun osoz irekiko da aurrerantzean

**U**dako oporraldiaren ostean, ateak zabaldu berri ditu Oiarde Kiroldegiak. Abuztuaren 25az geroztik astelehenetik larunbatera egun osoz erabilgarri daude kirol instalazioak, baita bazkalorduan ere. Ikastaroen izena ematea ere abian jarri dute jada.

Uztailan iragarri bezala, berrikuntze-kin hasi dute kirol urte berria Oiarde Kiroldegian. Abuztuaren 25az geroztik, bazkalorduan kirola egiteko tartea har daiteke. Duela hilabete arte, 14:00etan ixten zuten kiroldegia. Hemendik aurrera ordea, Oiardoko kirol jarduna ez da etengo egun osoan.

Astelehenetik ostiralera: 7:00-22:00 (igerilekua 21:00ak arte).



SPINNING, PILATES, AEROBIK... AUKERA ZABALA IZANGO DA AURTEN ERE.

Larunbatetan: 9:00-20:00. Igandetan: 9:00-13:00.

### Izen-ematea irekita dago

Udal Kirol Patronatuak dagoeneko prest du denboraldirako kirol ikastaro

eskaintza. Izena emateko epea ere ireki dute. Iaz ikastaro desberdinetan parte hartu eta udazken honetatik aurrera berriz ere jarduera berean trebatu nahi duten ikasleek izena emateko lehentasuna izango dute, irailaren 15era arte.

## Oiarde kiroldegian, lehorreko kirol ikastaroen eskaintza 08-09

ORDUTEGIA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
7:30-8:20	SPINING	PILATES 1	SPINING	PILATES 1	SPINING
9:00-09:50	MANT.GIMNASTIKA AEROBIK	PILATES 2	MANT.GIMNASTIKA AEROBIK	PILATES 2	MANT.GIMNASTIKA AEROBIK
10:00-10:50		3. ADINA		3. ADINA	
15:30-16:20		SPINING		SPINING	
18:00-18:50	PILATES 1edo 2		PILATES 1edo 2		
18:40-19:30		SPINING		SPINING	
19:00-19:50	PILATES 2 edo 1		PILATES 2 edo 1		
19:30-20:20		AEROBIK 2		AEROBIK 2	
20:00-20:50	POWER DUMBELL		POWER DUNBELL		
20:30-21:20		AEROBIK 1		AEROBIK 1	
20:50-21:40	SPINING		SPINING		

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

**JOSETXO IKATZETA**  
Iturgintza  
TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**LAUKOTE**  
OKINDEGIA  
KAFETEGIA  
Puntapax kalea, 16 behea  
(Artzabal) 943 36 09 80

## Igerilekuko ikastaroak 2008-2009

**HAURTXOAK (6 hilabete-2 urte bitarte).** Txiki-txikiakin uretan gozatzeko.

Astelehen eta asteazkenetan \_\_\_\_\_ 16:40 – 17:30

Astearte eta ostegunetan \_\_\_\_\_ 16:40 – 17:30

Larunbat eta igandetan \_\_\_\_\_ 10:10 – 11:00

Larunbat eta igandetan \_\_\_\_\_ 11:00 – 11:50

**URETARA MOLDATZEA (3-4 / 5-7 urte).** Igerian ikasteko, ondorio bat bezala.

Lanegunero \_\_\_\_\_ 16:45 – 17:30, 17:30 – 18:15, 18:15 – 19:00

**UR LUDOTEKAK (3-7 urte bitarte).** Uretan gozatura, trebetasunak lortzea.

Astelehen eta asteazkenetan 16:45 – 17:30, 17:30 – 18:15, 18:15 – 19:00

Astearte eta ostegunetan 16:45 – 17:30, 17:30 – 18:15, 18:15 – 19:00

**IGERIKETA ESKOLA (8-14 urte bitarte).** Igeriketaren hastapenak.

Astelehen eta asteazkenetan \_\_\_\_\_ 19:00 – 19:50

Astearte eta ostegunetan \_\_\_\_\_ 19:00 – 19:50

**HASTAPENA (helduentzat).** Igerian ikasteko helburuarekin.

Taldea egokitzen den ordutegian

**HOBEKUNTZA (helduentzat).** Igerian dakitenek hobeto ikasteko.

Taldea egokitzen den ordutegian

**IGERIKETA GIDATUA (helduentzat)**

Erresistentzia, abiadura, teknika, ... etab. , aspertu gabe.

Taldea egokitzen den ordutegian

## Hasi da Zubietako Errebote Txapelketa

**A**buztuaren 24an hasi zen Enrike Abril Errebote Txapelketa. Nagusien mailan jokatzeko den lehiak, aurtengoan, Euskal Herriko zazpi talde bildu ditu; tartean, Zubietako bi. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak antolatutako txapelketa bi fasetan banatuko da.

Itzuli bateko ligaxka jokatu dute zazpi taldeek, multzo bakar batean. Lehen postuan sailkatzen denak finale-rako txartela eskuratuko du. Finalerdiko saio batean erabakiko da haren aurkaria; ligaxkako bigarren edo hirugarren sailkatuaren arteko norgehiagokan.

Finalerdia Villabonan jokatu da, urriaren 19an. Final handia astebe-te beranduago, urriaren 26an Oiartzunen.

### Zazpi talde, txapel bakarra

Enrike Abril Txapelketan zazpi izango dira lehiatuko diren taldeak: Oiarpe (Oiartzun), Luzaz Gazte (Donibane-Lohitzune), Kapito Harri (Uztaritze), Zubieta 1, Zubieta 2, Kanbo eta Behar Zana (Villabona).

Lehen jardunaldia abuztuaren 24ko asteburuan jokatu zen, honako emaitzekin: Oiarpe 9 - Luzaz Gazte 13

Kapito 6 - Zubieta1 13

Zubieta2 13 - Kanbo 3



**Heapaindegia eta Solarium-a**  
**Ioli Lizarralde**  
 Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.  
 Zubiaurrenea, 5B ☎ 943 361 971



**Usurbil Autoak, S.C.L.**  
 Zerbitzu Ofiziala  
 Zumartegi Poligonoa,  
 Aitezarra kalea, 1.  
 20170 USURBIL  
 Faxa: 943 36 62 92  
 ☎ 943 36 10 79

**BORDATXO edaritegia**  
**PINTXO BEREZIAK**  
 Zubiaurrenea, 5  
 Telf: 943 37 10 42

**URDAINTZI S.L.**  
 garikuntza  
 ☎ 943 36 10 79  
 ☎ 943 36 10 79  
 ☎ 943 36 10 79

**JOSUE ARANZAZISTROKI**  
**IGELTSERITZA eta PINTURA**  
 Juan Jose enea, 6 Kalezar  
 Telf: 606 37 21 05

**ERRAZKIN Igeltseritza S.L.**  
 Tel.: 649 435 470  
 Faxa: 943 372 679  
 K./ Nagusia 47. Behea A.  
 20170 USURBIL





## Agenda !

### Irailak 4 osteguna

Hitzaldia: Ganaduaren egoera gaur egun (ekonomikoa). 20:00etan Sutegin.

### Irailak 5 ostirala

Erlezaintzako elikagaien manipulatze ikastaroa. 17:00etan Sutegin. Izen-ematea: 675 956 834.

### Irailak 8 astelehena

- Zumarte Musika Eskola martxan hasiko da irailaren 8an.

- Odol-ematea herriko anbulatorioan. 19:00etatik 21:00etara.

## KzGunea

### MINTEGIAK

Bat-bateko mezularitza  
Irailak 3/4, 18:00-20:00

Sinadura elektronikoa  
Irailak 5, 16:00-18:00

www.eustat.es  
Irailak 5, 18:00-20:00

Sinadura elektronikoa  
Irailak 8, 16:00-18:00

Irailean, arratsalde. Orduetgia:  
16:00-20:00. Kale Nagusia, 37.  
Tf: 943 36 14 12.

## Erlezaintzako manipulatze txartela lortzeko ikastaroa antolatu da Sutegin

Gipuzkoako Erlezain Elkartearen eskutik, erlezaintzako elikagaien ekoizpenerako beharrezkoa den txartela eskuratu ahal izango da ostiral honetan, irailak 5. Horretarako, 17:00etik aurrera Sutegin, elikagaien higienerari eta segurtasunari buruzko informazioa jasoko dute ikastarora bertaratzen diren herritarrek. Amaieran egingo zaaien azterketa txiki batekin, eskuratu ahal izango dute aipatu txartela. Horretarako, saiora bertara, nortasun agiriaren kopia eraman behar da. Baita norbere argazki txiki bat, atzean izen abizenak idatzita dituela. Ikastarorako aldeztatik matriku-



IKASTAROA IRAILAREN 5EAN IZANGO DA, 17:00ETATIK AURRERA SUTEGIN.

latu behar da, 20 euro ordainduta. Gehienez hogeitaz laguntzako lekua egongo da. Informazio gehiago 675 956 834 telefono zenbakian edota erlezaintza@telefonica.net posta elektronikoan.

## Ganaduari buruzko hitzaldia

Alkartasuna Nekazal Kooperati- baren mendeurrenaren haritik, aurrera doa urte honetarako programatu dituzten ekitaldiak. Hurrengo, ostegun honetan, irailaren 4an izango da. Juanma Intxaurrendieta ganaduaren gaur egungo egoeraz mintzatuko da Sutegin. Gaiaren alderdi ekonomikoa landuko duen hitzaldia 20:00etik aurrera eskainiko du. Sarrera doan.



IKUSPUNTU EKONOMIKOAZ HITZ EGINGO DA BATEZ ERE SUTEGIN.

**CLIMATA-T**  
klimatizazio orokorra

687 858 390  
climata\_t@yahoo.es

ARRAINDEGIA  
**PELLO**

Puntapax Kalea,7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

ZUBIAURRENDEGIA, LISURBIL  
943361951

**ARRAINDEGIA**  
mistoa

Papera jartzea eta  
Pinturak orokorrean

**FERNANDO**  
PINTURAK

943 366 019  
943 363 460  
Kale Nagusia 1 - USURBIL

**Kima**  
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- beheha  
LASARTE-ORIA  
TEL. 36 61 97

## ETXEBIZITZA

- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukalde, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 220.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukalde, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Garaje itxia alokatzen dut Txaramunto etxean. Deitu 19:00etatik 21:00era 607582968 telefonora.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabilta. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.

- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeen egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaintzak

- Neska euskaldun bat behar da Usurbilgo Kinkildegian lan egiteko. Interesatuak deitu 609099824 / 943214508 telefonora.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- "Agiña Piperrak" enpresak, emakumeei zuzendua. Uztailearen erdi aldera hasi eta urrira arte lana egin nahi duenak piperrak ontziratzen azaldu dadila enpresatik goizeko 9:00etatik 13:00era. Laneko ordutegia goizeko 06:00etatik 14:00ak arte izango litzateke, astelehenetik ostiralera.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Irailaren hasteko eta asteen hamasei orduz (ordu eta erdi goizean eta bi ordu arratsaldean), bi ume zaintzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. 635 755 666 edo 943 314 709.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabilta. Orduategian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarte-ka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

## Lan-eskaerak

- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Garbiketan, gaixoak zaintzen... edo bestelako lanetan. 608 00 54 06.
- Lan bila nabil. 608 83 50 33.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperiantziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

- 18 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da uztailean goizez edo arratsaldez haurrak zaintzeko. 621626500
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 366 710.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bakarkako haur ohe bat salgai koltxoi eta guzti. Tamaina: 90 x 1,90. Oso gutxi erabilia eta polita. Interesdunek: 629 730 299.
- Arropadenda batetarako altzariak eta mostradore bat saltzen da merke. 943 363 448.
- Betaurreko batzuk galdu genituen ekainaren 20an, arratsaldean, Ardi Beltz garagardotegi parean. Aurkitu badituzu: 943 370 249.
- Txandala baten jertsea galdu da, urdin argia eta Adidas markakoa. 10 urteko ume baten tamainakoa. 943 37 68 97.
- Belarra mozteko eta fardoak egiteko zerbitzua. Tel: 607457004 Dani.
- 1,5 metroko somierra eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tlf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberrian umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Kotxeko aulkixoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkia salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapo-re@euskalnet.net

## JAIOTZAK

Andoni Roura Arrillaga, uztailak 7  
 Aimar Eizagirre De Jesus, uztailak 8  
 Haritz Telleria Aperribai, uztailak 16  
 Eneritz Yeregi Telleria, uztailak 20  
 Enaitz Errasti Alkorta, uztailak 24  
 Ane Sillero Millan, uztailak 31  
 Manex Agirre Soto, abuztuak 5  
 Leire Alduntzin Sagardia, abuztuak 11  
 Nora Pagola Agorreta, abuztuak 20  
 Alain Clemente Aramendi, abuztuak 23  
 Eneko Makazaga Sanchez, abuztuak 27  
 Enaitz Manterola Latienda, abuztuak 29



Abuztuko azken ostiralean, euskal presoan eskubideak aldarrikatzeko elkartu ginen eta bide batez argazki hau ateratzeko tartea hartu genuen. Zorionak! Preso eta iheslariak etxera!



**Zorionak Ekain!** Irailaren 8an, 7 urte beteko dituzu. Segi orain arte bezala, muxu handiak Ibai, aita eta amaren partez.



**Zorionak andereño!** Ondo pasa zure urtebetetze egunean, zure lankideen partez, muxuak!

## HILDAKOAK

**Calixto Ibarгойen Alzaga** Abuztuaren 25ean hil zen 75 urte zituela. Kaleberri.



EUSKARA ESKOLAK  
AZTERKETA OFIZIALAK ETA TITULU HOMOLOGATUAK

# USURBIL

943 37 20 01

Udalaren diru laguntzaz

## ETUMETA EUSKALTEGIA

Kale Nagusia, 45 behea.  
20170 USURBIL

Matrikula Ordutegia  
11h-13h · 18h-20h



mihia jan dizu katuak?



**dek**



milaka hiztun berri urtero

IKASI EUSKARA

[www.aek.org](http://www.aek.org)

902 362 294

# Hileroko aurrezkiarentzat...

% 6

**U.T.B.**  
LEHENENGO  
URTEAN

**Eskaintzak 2008ko irailerako balio du**

## Ezaugarriak:

- Erabateko erabilgarritasuna eta komisiorik gabe.
- Hileko ekarpena: 30 €-tik 300 €-raino.
- Interesak urtean likidatzen dira.
- Ordaintzen ez diren kuotengatik ez dago komisiorik edo zigorrik.

nomina Euskadiko Kutxan  
helbideratuta daukaten  
bezeroentzako abantaila berezia  
**nominamulti**